

Edateko Ur Hornidurarako Udal Zerbitzuari buruzko Erreklamendua.

ARRAZIOEN AZALPENA

Edateko ur hornidura da Udalak, bizi kalitatea hobetzeko auzo eskubidea betez, eskaini behar duen baitaezko gutxiengo zerbitzu bat.

Udalerri honetan zerbitzu hau aintzinatik ematen bada ere, ez du berau martxan jartzeak sortzen dituen etengabeko arazoak konpontzeko beharrezkoa den arautegirik. Hau dela eta, Udal Korporazioei aitortutako erreklamenduzko ahalmenaz baliatuz, testu honek behar bezala sistematizatuta eta erreklamendu bati dagokion kasuiztikaz. Zerbitzu Batzordeak ezarritako zenbait irizpide biltzeko xedea du, horretarako prestazioaren izaera kontuan hartuta.

Hornidura kontratu bidez burutzen denez, Erreklamenduak zerbitzuaren oinarritzko tresna bezala hartzen du Ordainketa Poliza.

Prestazioaren printzipio nagusiak kontuan hartzen dira, bai eta zerbitzuan parte hartzen duten elementu pertsonal, tekniko eta ekonomikoak ere, eta erregulatu gabe geratutako aspektuetarako xedapen osagarriak emateko aukera aurrikusten da.

ATARIKO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Atala. Xedea.

Ereklamendu honek Pasaiako herriari Edateko Ur Hornidura Udal Zerbitzua erregulatzeko xedea du.

2. Atala.

Pertsona naturalak zein juridikoak izan daitezke Udalaren Ur Zerbitzuaren erabiltzaile; kokapena, ur-
emaria, e.a. emakida sarea eragozpen ez duten neurrian.

3. Atala. Xxxx xx xx xx xx xxx

Udalak edateko uren hornidura bermatuko du eta xedapen bereziak emateko eskubidea bere esku gordeko du, uraren garbitasuna uki dezaketean erabileren kontsumoari dagokionean bidezkoa jotzen badu, horretarako, eskatutako baimenak baldintzatuz. Zerbitzuaren funtzioamendu normalean galera larriak sor ditzaketean kontsumoak uka dezake.

4. Atala. Kudeaketa.

Pasaiako Udalak Zuzeneko Kudeaketaz eta administrazio organo berezirik gabe emango du zerbitzua, honek daraman arriskua bere gain hartuta.

5. Atala. Harreman administratiboa.

Polizaren ondorioz Udala eta abonatuaren arteko harreman juridikoak izaera administratiboa izango du, bera Udal Erregimenko araudiari eta eskumen kontentzioso-administratiboari lotuko zaio.

6. Atala. Autofinantziaketa

Irabazasmoa ez izan arren, ur hornidura aurrekontu oreka mantenduko du, autofinantziaketa lortzen duten legezko tarifen bidez.

7. Atala. Erantzunkizun solidarioa.

Edateko uren hornidura duten higieziaren jabeek, gainontzekoek lokalak alokatu edo lagatu dutenean, erantzukizun solidarioa izango dute bertan emanten diren ur erabileran.

8. Atala. Hornidura eta hirugarren batzuk.

Udalaren baimenik ez badu, abonatuak ezin izango du hirugarren bat hornitu. Udalak baimena bidezko kasutan baino ez du emango, eta beti, behin behineko izaeraz.

I. IDAZPURUA ZERBITZUAK EMAN

I. ATALBURUA: HORNIDURA MOTA.

9. Atala. Ur helburua.

Urak, hitzarmenean araututako erabilera bakarria izango du.

10. Atala. Erabilera.

Zerbitzu publikoko urek honako erabilera izan dezakete:

Etxeko erabilera: Etxeko erabileraratzat habiatutako etxebizitzetara emandako ura hartzen ditu. Honek elikadura, garbitasuna, garbiketa eta abarrekoko xedea izango du.

Industri erabilera: Industrialtzat honako erabilera hauek hartuko ditu:

-Denda, bulego, igerileku, iharduera, ustiapen eta industrietan, euren beharrak asetzeko xedez eta inolako frabikazio prozesutan parte hartu gabe, ura erabiltzea. Ondorio hauetarako, tratamendu eta garajeetan ura erabiltzea ere industri erabileraratzat hartu da, nahiz eta industri erabilera ez eduki, etxebizitzarentzako erabiltzen ez denean.

-Ura euren iharduera edo ustapenari datzekion osagai edo lehengaitzat duten industria, iharduera edo ustapeneko urari ematen dieten erabilera.

-Untzi, arrantzi eta jolas-untzi hornidura.

-Etxebizitzetan eta industri pabilioien eraikuntzan, eta obretan oro har, enpresek urari ematen dieten erabilera.

Erabilera ofiziala: Erabilera ofizialtzat Zentru eta Eraikin Publikoetan urari ematen zaion erabilera hartuko dugu, bai eta onegintzako, irakaskuntzako edo asistentziako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ematen dieten erabilera ere.

Erabilera berezia: Erabilera berezitzat udal iturri, kale ureztaketa, sute-aho eta horien gisako Udal Zerbitzuetan urari ematen zaion erabilera hartuko dugu.

11. Atala. Nekazaritza eta baso erabilera.

Debekatua dago zerbitzuko urek baratza edo beste edozein nekazaritza eta baso garastaketarako erabiltzea, bereziki baimenduak ezik.

12. Atala. Erabilerarako lehentasunak.

Etxeko erabilerarako hornidurak du lehentasuna eta ur emaria agortu, matxuraren bat izan, kontsumoa ugalduta edo beste arrazoi batzuk direla medio ura urrituz gero. Udalak etxeko erabilera bermatzeko xedez, beste erabilerarako ur hornidura eten dezake.

Ur hornidurarako honako lehentasun ordena ezarriko da:

1. Etxeko erabilerak.

2. Erabilera bereziak.

3. Industri erabilerak, igerilekuak ezik.

4. Igerilekuak.

II. ATALBURUA: ZERBITZUA KONTRATATZEA.

13. Atala. Hornidurarako eskariak.

Hornidurako eskariei honako agiriak gaineratuko zaizkie:

- a) Eredu ofizialaren arabera betetako instantzia.
- b) Barneko Banaketa Sarearen azterketa.
- c) Ur erabileraren frogagiria 10. atalaren arabera.
- d) Industri ordezkariak sinatutako krokadura buletina.

Eskabidea ikusirik eta araubide honetan ezarritakoaren arabera erantzuna baiezkoa denean, jakinaraziko zaio erantzuna ordainketa poliza egin dezan.

14. Atala. Banaketa sarearen azterketa.

Banaketa sarearen azterketa honako dokumentuak behar ditu: Oroit-idazki arrazoitua, banaketa sarearen planoak eta kontsumo beharrak, sareak behar dituen presioak jakinaraziz.

15. Atala. Erabilera justifikazioa.

Ur hornidura eskatzaileak ondorengo ataletan aipatzen diren agirien bidez justifikatuko du erabileraren helburua.

16. Atala. Etxeko erabileraren justifikazioa.

Etxeko erabilerarako ur hornidura justifikatzeko, eskatzaileak ondorengo agiriak alegatuko ditu:

- a) Lehen erabilerarako lizentzia (eraikin berrietan).
- b) Etxebizitzari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiria edo aipatutako zergan alta-deklarazioa.
- c) Kontratatzaileak nahi izanez gero, ordainagiriaren ordainketa helbideratzearen banku-justifikagiria.

17. Atala. Industri erabileraren justifikazioa.

Industri erabilerarako ur hornidura justifikatzeko, eskatzaileak ondorengo agiriak alegatuko ditu:

- a) Denda zabaltzeko udal lizentzia.
- b) Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion Lizentzi Fiskalaren alta.
- c) Kontratatzaileak nahi izanez gero, ordainagiriaren ordainketa helbideratzearen banku-justifikagiria.

18. Atala. Obretarako erabileraren justifikazioa.

Obretarako ur hornidura eskarian ondorengo agiriak alegatuko dira:

- a) Obretako Udal Lizentziaren kopia.
- b) Kontratatzaileak nahi izanez gero, ordainagiriaren ordainketa helbideratzearen banku-justifikagiria.
- c) Udal zergen ordainketaren frogagiria.

d) Hitzarmena edo frogagiria, Udalaren kontura egiten dituenean lanak.

19. Atala. Zerbitzurako baimenak.

Txosten teknikoa ikusi ondoren emango ditu Alkateak edozein erabileratarako zerbitzuari dagozkion baimenak

20. Atala. Aldi baterako baimena.

Aldi baterako baimenetan eguneroko aldietan kobratuko da ur hornidura, mugarriak, giltzak, e.a. ezarriz, erabiltzaileak kontagailuak jartzeko duen eskubidea kaltetan gabe.

21. Atala. Abonatuak.

Zerbitzua jaso ahal izateko beharrezkoa den ordainketa polizaren titularrak hartuko ditugu abonatuak.

22. Atala. Etxeko hornikuntzarako abonatuak.

Etxeko hornikuntzarako ordainketa poliza etxebizitzaren jabearekin edo errenteroarekin sinatuko da.

Prekarioko lagapenetan ordainketa poliza lagatzailearekin sinatuko da.

Kontugailu bakarreko inmieblea bada, poliza Jabeen Komunitateko Administrazioarekin edo inmiebleko titularrarekin sinatuko da.

23. Atala. Industri hornikuntzarako abonatuak.

Industri hornikuntzarako ordainketa poliza zerbitzuaz baliatzen den industria edo dendaren titularrarekin sinatuko da.

24. Atala. Titularitate aldaketa.

Udal zerbitzuari loturik dauden kontadore indibidualeko higiezin, etxebizitza eta lokalen titulartasun-aldaketak, jabetza eskualdatu den egunetik kontatzen hasita, gahienez hilabeteko epean jakinarazi beharko zaizkio Udalari, jabe berriarekin beste poliza bat izenpetzeko.

25. Atala. Administrazioaile aldaketa.

Administrazioaileak sinatutako etxeko erabilerarako kontagailu orokorra duten jabe komunitateetan, ordainketa poliza mugagabeko iraunkortasuna izango du komunitatea mantentzen den bitartez. Administrazioaile aldekatak ez dira komunikatu behar.

26. Atala. Bertan ez dauden abonatuak.

Ordezkaritza bat izendatu beharko dute udalerritik kanpo bizi direnek. Ur-hornidurak sortzen dituen harremanak, ekonomikoak barne, ordezkariekin emango dira.

27. Atala. Hornikuntzaren legeztatena.

Gaur egun Zerbitzuaren erabiltzaileak direnak hornikuntza legeztatu beharko dute, horretarako lehen xedapen iragankorrean aurikusitako moduan eta epeetan dagokien poliza sinatuz.

28. Atala. Abonatu errentari.

Abonatu poliza sinatu nahi duten errantariak, jabearen idatzizko baimena aurkeztu beharko dute, Ur hornidura eskubidea errentariarekin batera jabeak sinatuta baleuka, jabearen baimena dagoela ulertuko da.

29. Atala. Baimenaren legeztatena.

Aurreko artikuluan aipatutako Zerbitzu-eskaera sinatzeak, inmieble edo lokalean beharrezko lanak zein beharrezko ikuspenak egiteko baimena zabala ekarriko du.

30. Atala. Kaudimena.

Hornidura betebeharrak bermatzeko, abonatuak, poliza sinatzeko momentuan, Udal Ordenantzak ezartzen duten kaudimena gordiluko dute. Hurrengo bi artikuluetan ezarritakoaren arabera, betebeharrak hau kendu ahal izango da Udal Ordenantzan horrela adieraziz gero.

31. Atala. Kaudimenaren osagarria.

Gordailutako kaudimenaren balioa %50 gainditzen denean ezarritako tarifa aldaketa dela eta, honen gaurkotzea eskatu ahal izango du Udalak.

32. Atala. Kaudimenaren itzulpena.

Zerbitzu harremanak bukatu eta erabilitako ura zein beste edozein konpromezu ordaindu ondoren itzuliko da.

33. Atala. Hitzarmena.

Sinatutako ur hornidura hitzarmenak epe mugatua izango dute.

34. Atala. Hitzarmena hausteko karia.

Hitzarmena hausteko kausak izango dira:

1. Hornidura eskaeran ezarritako ur erabilera urratzea.
2. Obra eta Zerbitzuen aurretiazko baimenik gabe instalazioaren ezaugarriak nabarmen aldatzea.
3. Erabiltzaileak, ekonomi arloko betebeharrak. betetzeke berreketa.
4. Araudi honetan larrizat jotutako hutsegite berreketa.

35. Atala. Zerbitzuen baja.

Abonatu batek zerbitzuan baja eman nahi duenean, noiz nahi uko egin diezaiotke hornidurari, horretarako baja- eskatzea bete beharko duelarik. Eskaera egin ondoren, Obra eta Zerbitzuen Departamenduak esango dio non butxatu behar duen hartzea, edota Udala horrela erabakiz gero, itxi eta azken irakurketa egiteko pertsonal berezitua bidaliko du. Datu honekin, baja emango zaio eta berme bezala jarritako kantitatea (balidin badago) atzera itzuliko zaio, zerbitzua dela eta obligazioen paguan egunertua badago behintzat.

36. Atala. Zerbitzuari uko egitea.

Hurrengo kasu hauetan abonatuak zerbitzuari uko egin diola ulertuko da:

- Kontsektibo diren bi agiri ez ordaintzea.
- Kontagailua irakurtzera doazen langileei sarrera galeratzea.

Aurreko kasu guztietan interesatuaren entzunaldia gordeko da hornidura moztu aurretik, eta gastuak bere kontura izango dira.

37. Atala. Beharrezko kanporatzea.

Higiezinen botatzea ekiten denean, beharrezko kanporatzea bete beharko dute jabeek.

38. Atala Hornidura berrastea.

Erroldaz kanporatu ondoren ur-hornidura berrasteko ordainketa poliza berri bat bete behar da.

39. Atala. Zerbitzuko titularraren aldaketa.

Ur-hornidura zerbitzu aldaketarako idatzizko eskaera eta ordainketa poliza bete beharko ditu.

Aurreko egin ondoren Udalak berak emango dio kanporatzea aurreko titularrari, ordainketa guztiak konforme baleude.

III. ATALBURUA: ORDAINKETA POLIZA.

40. Atala. Ordainketa polizaren derrigorrezkotasuna.

Eskatzaileak dagokion ordainketa poliza sinatu ez badu, ez zaio inolaz ere ur hornikuntzarik eskainiko, hau derrigorrezko baldintza baita.

41. Atala. Erabilerarako onarpena.

Eskatzaileak eta Udalak Ordainketa Poliza laukoitz baten bidez formalizatuko dute erabilerarako onarpena.

42. Atala. Aldaketak.

Ondorengo aldaketa eta berrikuntzek hasierako baimena baliogabetuko dute, Ordainketa Poliza berri bat sinatu beharko delarik. Ordainketa Poliza berri hau sinatzeari ezetza emanez gero, baimenari uko egiten zaiola ulertuko dugu eta ondorioz Zerbitzua etengu dugu. Berrezartzeko, lotune eskubideari dagokion kuota berria ordaindu baharko da.

43. Atala. Ordainketa Poliza eredia.

Ordainketa Poliza I. erantzian dagoen eredura moldatuko da.

IV. ATALBURUA. LOTUNEAK.

44. Atala. Hornikuntza instalazioak.

Eraikin bat urez hornitzeko, halako elementuak dituen instalazio bat behar da:

-Lotunea.

-Kontagailua.

-Barneko sare orokorra.

-Barneko sare partikularra.

45. Atala. Lotunea.

Eraikinaren ixteko giltza eta sare orokorra edo Udalaren hartunea lotzen duen tuteria-zatia da lotuena; elikadura tuteria aipatu ixteko giltza eta kontagialu orokorraren artean dagoena da.

46. Atala.

Hartune horren ezaugarriak elikatuko duen eraikinari aurriztatu zaion kontsumorako behar den presio, emari, kontsumo, kokapena eta dituen zerbitzuen arabera ezarriko da.

Ur zerbitzuak ezarriko du banaketa saretik irtengo den puntu zehatza eskatzailearen hornidurako.

47. Atala.

Udal Zerbitzuak kroatuko du banaketa sarean eskatutako ura hornitzeko lotuen adarrari dagokion hartune balbula.

48. Atala. Lotune adarra.

Aurreko artikuluan aipatzen den lotune adarra Udal ur- zerbitzuak bakarrik izango du erabilera ahalmena (ez titularrak ezta hirugarrengoak ere ez) eta fabrika erregistroko eta metalezko estalki batean ezarriko da.

49. Atala. Lotune buruztapena.

Hargunea edo hartze adarra eta elikadura-kodia eskatzaileak egin beharko ditu eta bere kostura Udalak ezarritako ezaugarrien arabera.

Udalak lanean buruztapena ikuskatu ahal izango du, egokia ez bada hornidura ukatzeko fakultatea izango duelarik.

50. Atala. Ixteko giltzak.

Ur-hartune bakoitzean, etxe zein lokala barruan sartu eta ixteko giltza jarri behar da, lotunea eta higiezinaren tutuaren loturan. Ixteko giltza, beharrezkoa denean, erabiltzaileak erabili ahal izango du.

51. Atala. Lotune jabetza.

Hastuneak eta lotuen adarrak erabiltzaileen jabeak dira. Udalak ur-gordailuan ezar dezakeen kontserbazio eta mantenimendu kuotaren kaltetan gabe; erabiltzaileak izango dira mantenimendu, oker eta erabilpen desegokien erantzule.

52. Atala. Lotune bakarra.

54. atalean ezik, funts bakoitzeko hartune edo lotune adar bakarra egongo da, hornitzen duen finkarako soilik balioko duena.

53. Atala. Krokadura eskubidea.

Krokadura eskubideak eta sare orokorraren partaidetza-eskubideak direla eta ordainketa poliza sinatu aurretik ordaindu behar diren kantitateak; erabilera, krokadura eta hastuneko kalibrearen funtsean ezarriko dira.

54. Atala. Lotune berriak.

Ur eskaerari erantzuna eman ahal denean baina banaketa sare orokorra hurbil ez dagoenean, udalak eskatzaileari lotune adarra orokorra baino haundiagoa eraikitzea eskatu ahal izango dio. Kasu honetan Udalak ez du banaketa sare orokor honetan parte hartzeagatik dirurik jasoko, krokadura eskubideak ezik. Ahal den neurrian, ondoko erabiltzaile berria zerbitzua emango die erarketaren arabera.

55. Atala. Lotune hedakuntza.

Eskatzaile batek lotunea hedatzeko eskaria aurkezten badu, ur-erabilaren kaltetan gabe, dagokien baimena jasotzerakoan, hastune eta lotune adarraren krokadura eskubide guztiak ordainduko ditu. Honetaz gain, kalibre berriaren gehiketa ere, banaketa sare orokorrari dagokiona ordainduko du.

56. Atala. Titularitate aldaketaren gaineko tasak.

Ur-horniduren titulartasun soila aldatzen den kasuetan, lotura, hartune edo adar berririk egin behar ez bada, titular berriak berari dagokion tasa soilik ordaindu beharko du, hau da, ez du lotura-eskubidearen tasa ordaindu beharrik izango, ezta banaketa orokorreko sarean parte hartzeakoak. Udal araubidetan titularitate-aldaketako tasak eliminatu ahal izango dira.

57. Atala. Obra hornidura.

Industri zein etxebizitzarako eraikinak eraikitzen direnean, baita lan orokorretan ere; behin behineko eraikuntza dela (denbora laburretako ibilerarako) eta eraikin hauen ezaugarriak behin betiko eraikuntzekin konparatuz; bai marraketa, bai burutze moduan desberdintasun handiak dutela.

58. Atala. Udal iharduerarekin zerikusirik ez duten aldaketak.

Udalak zuzenean egiten ez dituen obren ondorioz edo Udal ekimenaz kanpoko beste arrazoiren baten ondorioz, hartune edo lotune adarretan aldaketarik edo hedakuntzarik burutu behar bada, Udalak ez du kalteordainik emango.

59. Atala. Krokadura buletina.

Banaketa Sare Orokorrean edozein lotune egiteko, Industri Ordezkaritzak ikus-onetsitako Krokadura Buletina aurkeztuko du.

V. ATALBURUA. KONTAGAILUAK.

60. Atala. Kontagailu bidezko hornikuntza.

Udalerrri osoan kontagailu bidezko hornikuntza izango da normala, bide publikoan egiten diren erabilera bereziak (ureztaketa-aho, sute-aho, iturri publikoak, eta abar) salbu, hauetan bidegabekoa baita kontagailuak jartzea.

61. Atala. Kontagailua.

Kontagailua ofizialki onartu eta homologatutako histuan eta motakoa izango da.

62. Atala. Kontagailu mota.

Udalak erabakiko du makina mota, diametroa eta kokapena; abonatu behartu den gutxiengoa, ustezko edo benetazko kontsumoa, sare erregimena eta hornitu beharreko higiezinaren ezaugarriak kontutan harturik.

63. Atala. Prezintaketa.

Kontagailu ofizialki onetsi eta homologatutako sistema eta eredu bati egokitua izango da.

64. Atala. Hasierako egiaztapena.

Aurretik industri ordezkaritzak egiaztatutako kontagailuak soilik ezarriko dira. Gastuak abonatuaren kontura joango dira.

65. Atala. Ondorengo egiaztapenak.

Zerbitzuak zein abonatuak nahi duenean egiaztatuko dira kontagailuak. Zerbitzuak hasi eta kontagailua ondo egonez gero, gastua Udalaren kontura joango da, eta abonatuaren kontura kontrako kasuan. Abonatuak egiaztapena hasterakoan bere kontu izango dira gastuak.

66. Atala. Kontagailu jabetza.

Eraiki berri diren eraikinetan eta ordenantza hau indarrean sartu ondoren ur instalazioetan konponketa edo berriketaren bat egin behar denean, ondoren aipatzen diren irizpedeak jarraituko dira ur neurketak egiteko momentuan:

1. Etxebizitza erabilerak: Kontagailu orokor bakarria ezarriko da eraiketaren etxebizitza guztientzat; kontagailu hidraulikoen trabesa, Udal ur zerbitzua neurketak egiteko egoki den lokal autonomo batean dagoenean ezik.

2. Industri eta berezi erabilerak: Neurketak egiteko egoki den lekuan ezarriko dira kontagailuak; bana erabili bakoitzarentzat. Etorpena etxebizitza erabilaren kontagailu trabesaren edo kontagailu orokorraren

aurretik ezarriko da. Atal honetan aipatu kasu guztietan kontagailu bakoitza bi bide giltza artean ezarriko da, erabiltzeko ahalmena duen pertsonalak neurketak eta egiaztapenak egin ahal dezan.

67. Atala. Kontagailuen jabetza.

Kontagailuak abonatuaren jabetzakoak izango dira eta beraren ardurapen izango da erosketa, instalazioa, mantenimendua eta konponketa, Udalak konponketa eta mantenimendua tasa kobratzen ez badu ordainagiri bakoitzean. Kontagailuek, zerbitzuak homologatutako eta dagokien arauak beteko ditu.

68. Atala. Kontagailuen matxurak.

Kontagailuaren funtzionamendua okerra denean edo kontsumoa gaizki markatzen duenean, ur-zerbituzak hilabeteko epea emango dio erabiltzaileari konpondu edo aldatzeko uraren hornidura atetzeke. Udalak konponketa eta mantenimendua tasa kobratzen badu ordainagiritan, aurrean aipatutakoa ez da aplikatuko. Berehala jakinarazi behar dira kontagailu matxurak.

69. Atala. Kontagailurik gabeko kontsumoaren fakturaketa.

Kontagailua gaizki dabilela konturatzeko datatik konpondua izan deneko data bitarteko aldian kontsumitutako ura, inolako errekariorik gabe fakturatu da, kontsumitutako ur kopurua ezartzeko, aurreko urtean aldi horretan kontsumitutako ura edo aurreko fakturazioan zehaztutakoa hartuko da kontutan, eta aurreko alditan kontsumitutako uraren kopuruari buruzko daturik ez badago. Zerbitzuak gutxi gora behera zehartuko du hau.

70. Atala. Kontagailu aldaketak.

Urte beteko epean kontagailuak bi matxura balitu, Udalak erabiltzaileari kontagailu berri bat jartzeko agindua eman diezaiolke, jabearen kontura. Konponketa eta mantenimendua tasa balego ordainagiritan, aurrean aipatutakoa ez da aplikatuko. Erabiltzaileak kontagailua aldatzen duen bitartez aurreko artikulua aplikatuko da.

71. Atala. Matxuratutako kontagailuaren fakturazioa.

Hilabeteko epea igaro ondoren ikusirik matxura zuzendu gabe, Udalak bere kriterioz hurrengo bi aukeretako bat hartuko du:

1. 69. Atalaren arabera kontsumoa neurtu prezio normalari %100 emanaz, fakturazio lehen aldian; ondorengo aldi bakoitzean %100 gehituz.
2. Matxuratutako kontagailua aldatu, erabileraren kontura, kontagailua prezioko fidantza gordailatu eta bere kontagailua ezarri arte akuraketa ordainduz. Momentu honetan fidantza itzuliko zaio, 66, 67 edo 69 artikuluetan ezarritakoaren kaltetan gabe.

72. Atala. Apurtutako kontagailu kentzeko ekintzak.

Honako pertsonak baino ezin izango dituzte kontagailuak jartzeko eta kentzeko ekintzak burutu:

- a) Udal ur Zerbitzuko langileak.
- b) Zerbitzu Batzordeak proposatuta, Udalak bereziki baimendutako pertsona edo entitateak.
- c) Baimendutako Instalatzaileak.

73. Atala. Kontagailu akuraketa.

Udal ur- zerbitzuak akuraketa zerbitzua sartzeko eskubidea gordetzen du, mantenimendua eta konponketarako aldizkako kuota finko ordainduz. Kasu honetan erabiltzaileak ez ditu begiztapen gastuak ordaindu behariko kontagailua ezartzerako ezta berrikusketetan ere ez.

74. Atala. Kokapena.

Kontagailek heltzeko eta garbitzeko erraza den kokaguna izango dute, honela irakuketa edo aldaketa errezteko.

Kontagailu lokalen neurriak ezarri ahal izango dira, hala badagokio.

Udalak, etxebizitza guztietan kontagailu orokorra ezartzeko agindua emateko eskubidea du, kontagailu trabesa ezarrita edo ezartzekotan dutenak ezik.

75. Atala. Ur itzulerak.

Beharrezko elementuak instalatu beharko dira, banaketa sarera ur itzulerak gerta ez dadin.

VI. ATALBURUA: BARNE INSTALAZIOAK.

76. Atala. Barne instalazioak.

Ofizialki baimendutako instalatzaile batek egin beharko ditu etxebizitzaren barne instalazio orokorrak nahiz partikularrak, gai honi dagozkion industri eta energiako ministraritzak ur instalazioetarako ezarritako arau oinarriak eta osagarri arauen arabera.

77. Atala. Udal ikuskapenak.

Udalak abonatuaren barne instalazioak ikuskatuko ditu indarrean dauden xedapenek zehazten dutenari lotzen zaizkiola zihurtatzeko xedearekin. Etxebizitzetako barne eta jabedun instalazioak, industri ministraritzaren ordezkariak edo autonomi zein Gipuzkoako eskudun organoa baimendutako ezarle baten bidez indarrean dauden araudiak betez. VII. ATALBURUA: ERRESERBA GODAILUA.

78. Atala. Erreserba gordailuak.

Etxebizitzetako erreserba gordailuak itxiak izango dira nahiz eta ur nibela atmosferarekin komunikazioan egon; eta erreserba- ahalmena ez da eguneroko bi heren baino gutxiagokoa izango ezta honen bikoitza baino gehiagokoa.

79. Atala. Gainezkakoa.

Gordailuak, hornidura tutuko bikoitzeko gainezkakoa izango du. Honetaz gain soberan dagoen ura isurtegiatara joan ez dadin buia bat jarriko da.

80. Atala. Kokapena.

Etxebizitzako goi partean ezarriko dira, goi partean dagoen kirruko barrenaren altuera gutxienez hiru metro izan dadin.

VIII. ATALBURUA. UREZTAKETA-AHOAK.

81. Atala. Ureztaketa-ahotik ura hartzeko baimena.

Obratarako zein aldibaterako lanetarako ureztaketa-ahotik ura hartzea baimentzen da, hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

82. Atala. Garantia.

Interesatuak Udalari eskatu beharko dio ureztaketa-ahotik ura ateratzeko baimena, eta Udalak baimena emanten badio, honekin batera kontagailua duen argailua ere emango zaio. Dena dela, fidantza bat ordaindu beharko du, lagatako materialaren truke. Materiala egoera onean itzultzen badu, eta kontsumitutako uraren ordainketa egin ondren, emandako fidantza itzuli egingo zaio, ezarritako kanonaren kaltean gabe.

83. Atala. Kontsumoaren neurketa.

Aipatutako hargailua erabiltzeko baimena dutenek hilabetero udaletxean aurkeztu beharko dute hargailu hori, kontagailuaren irakurketa egin ahal izateko. Obligazioa betetzen ez bada, azken irakurketaren ondoren kontsumitutako ur guztia, prezio normalaren gaineko %100eko errekaruarekin ordaindu beharko da eta emandako baimena indarrik gabe garatuko da.

84. Atala. Funtzionamendu eskasa.

Erabiltzaileak kontagailua gaizki dabilela ikusten badu, Udalari berehala jakinarazi eta aurkeztu beharko dio, honek alda dezan.

IX ATALBURUA: INSTALAZIO BEREZIAK

85. Atala. Gorapen sistema.

Hartune edo lotune adarrako presioa koronazio neurketatik 10 metro baino gehiago ez duenean, gorapen sistema bat jarri beharko da. Sistema honetan gorapen bonbak gordailu laguntzaile batetik hartuko dute ura, instalazio tutueriatik zuzenean ura hartzea guztiz debekatuta dagoelarik.

86. Atala. Birzikulazio instalazioak.

Herri saretik ura hartzen duten izozkailu sistemak birzikulazio sistema izango dute bereziko araudietan ezarritakoaren arabera.

87. Atala. Atxiki balbulak.

Aurreko artikuluko kasuetan atxikiak itzultzeko atxiki-balbulak izango dute, indarrean dauden araudiekim bat etorriz.

Sistema berbera erabiliko da ur-berogailu eta osasun ur beroen kasuetan.

88. Atala. Fluxore instalazioa.

Fluxore instalazioa dauden eraikuntzetan, hornidura eskatzaileak egiaztatuko du beste harrera aparailu guztiei ez zaiela ukitzen. Kontrako kasuan beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

Xxx x x x x xxxxxxx XXXXxx xx xx xx xx xx xx xx xx xx xx xx xx xx xx xx xx

89. Atala. Igerilekuetan instalazioak.

Udal Ur Zerbitzuko uraz hornitzen diren igerileku pribatu zein publikoek beharrezkoa ez den ur kontsumoa sahiesteko berzikulazio sistema bat eduki beharko dute, bai eta ur itzulerak galarazteko erretentzio balbulak ere.

X. ATALBURUA: HORNIKUNTZARAKO BALDINTZA OROKORRAK.

90. Atala. Hornikuntza iraunkorrak.

Ur hornikuntzak izaera iraunkorra du, hurrengo artikuluean aurrikusten diren kasuetan izan ezik.

91. Atala. Hornikuntza etetea.

Honako kasu hauetan bidezko da ur hornikuntza etetea edo moztea:

a) Zerbitzuko edozein instalaziotan hornikuntza ezinezkoa egiten duen matxuraren bat izan denean.

b) Ur-emia jaitsi edo desagertzearen ondorioz, hornidura, metatzea edo ur presioa eskasa denean.

c) Biztanlegoaren hazkundearen ondorioz, dagoen hornidura eta kontsumo beharren artean desoreka ematen denean, hornidura hedatzen den arte.

d) Hornikuntzaren baldintzen hobekuntzarako instalazioetan beharrezko konpoketa edo hobekuntza obrak burutzen direnean.

Kasu hauei ez dagokie inolako kalteordainik.

92. Atala. Kalte-galerak.

Udalaren ur Zerbitzua ez da hornikuntza ezaren, itxieren, apurketen edo presioa haunditze den urritzearen ondorioz, erabiltzaileen barne instalazioetan sor daitezkeen galeren arduraduna izango.

93. Atala. Hornikuntzan ematen diren eskasien berri ematea.

Erabiltzaileek hornikuntzan etenen bat, eskasiaren bat edo irregulartasunen bat nabaritzen badute, Udalaren Ur Zerbitzuari honen berri eman beharko diote, beti ere 90. atalean zehaztutako arrazoiak ez badira.

94. Atala. Instalazioen egiaztapena.

Udalaren Ur Zerbitzuko langileek, aldez aurretik identifikatu ondoren, bidezko egiaztapenak egin ahal izateko, instalazioko alde guztietara joan ahal izango dira.

II. IDAZPURUA TARIFAK

I. ATALBURUA. ARAU OROKORRAK.

95. Atala. Fakturazioa.

Kontuhartzaitzak kontsumoaren garaian indarrean zeuden tarifak aplikatuz fakturatuko du erabiltzaile bakoitzaren kontsumoa.

96. Atala. Kontsumoaren razionalitatea.

Tarifak zehazteko orduan Erregelamendu honetan aipatzen den autofinantzaketa hartuko da kotuan. bere egiturak beti ere beharrezkoak ez diren kontsumoak saieztera eta hornikuntzaren erabilera zuzena bermatzera joko du.

97. Atala. Tarifak zehazteko sistema.

Hornikuntzaren erabilera zuzena bermatzeko, hiruhileko tarifa binominaleko sistema aplikatuko da. Hau bi kuotatan batuta egongo da: bata finkoa, kontsumoa kontuan hartuko ez duena, eta bestea kontsumituriko bolumenaren eta erabilera motaren arabera.

98. Atala. Tarifen ezarpena eta aldaketa.

Tarifak dagokien Ordenantza Fiskalean azalduko dira.

99. Atala. Hiruhilekoa.

Ur hornikuntzaren zenbatekoaren fakturaketak hiruhileroko izaera izango du, dagokion Ordenantza Fiskalak beste faktura modu bat zehazten ez badu.

100. Atala. Kontsumo ordainketa.

Aipatutako ordenantza Fiskalari egokituko zaio ordainketa modua eta prozedura. (Abonatuarekin adostutako banku-helbideratzea). Gipuzkoako Lurralde Historikoaren diru-biltzetarako araudia.

II. ATALBURUA: TARIFEN APLIKAZIOA.

101. Atala. Kuota finkoa eta gehiengoak.

Etxebizitza eta industriarako ur hornikuntzaren zenbatekoaren fakturaketak, hiruhileroko kuota finko batean oinarrituko da (kontsumoaren independentea) eta haunditzen diren blokeetan bereiztutako arabera beste kuota batean. Hiruhileroko kuota finkoa, higiezinaren etxebizitza eta lokal en bitzituak eta bakoitzeko kuota arteko ekoizkina izango da.

102. Atala. Erabilera berezien tarifazioa.

Erabilera berezien ur kontsumoa indarrean dauden tarifen arabera fakturako da.

Xxxx
xx xx xx xx xx xxx xx xxxxxxxx

III. IDAZPURUA: ERREGIMEN JURIDIKOA

103. Atala. Harreman administratiboa.

Udala eta abonatu eta erabiltzaileen arteko polizaren ondorioz sortzen den harremanak izaera administratiboa du, eta Udal Erregimeneko Oinarriak erregulatzen dituen araudiari eta eskumen kontentzioso-administratiboari lotuko zaio.

Udal Zerbitzuak erabiltzaileei ahalik eta eraginkortasun eta azkartasun handienaz erantzun beharko die, beti ere biztanlegoaren beharrei erantzuna ematen saiatuz, ur hornikuntza eta honiduraren arazoez arduratuz era erabiltzaileei behar denenan eta kominigarria denean zerbitzuaren eskasien berri emanez, hauen hobekuntza edo konponketarako bidezkoztat jotzen diren soluzioak eta medioak adieraziz.

104. Atala. Erabilketa razionala.

Erabiltzaileak hornikuntzarako instalazioak era razional eta zuzenez erabili behar ditu, gainontzeko erabiltzaileei galerarik burutzea saihestatzuz.

105. Atala. Erreklamazioa.

Zerbitzuaren erabiltzaileek Obra eta Zerbitzu bulegoan bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dituzte. Horiei aurkezpen ordena erantzun beharko zaie, premiazko egoera izan ezik.

106. Atala. Hornikuntzaren etendura.

Ubide apurketak, lehorteak, izozteak, deposituetan konponketak edo bestelako ezinbesteko kausak direla medio, hornikuntzarako ur-emaria nahikoa ez den kasuetan, udalak ur hornikuntza, behar den aldirako, eteteko eskubidea bere esku gordeko du eta ez dio abonatuari kalteordainik eman beharrik.

107. Atala. Ur ihesen konponketa.

Abonatuen edozein ur adarretan ihesik ikusten bada, interesatuari matxura 48 orduen barruan konpontzeko beharra eta derrigortasuna duela adierazioko zaio ofizioz. Konponketa hori burutu ezean, Udal Zerbitzuak egingo du, gastuak abonatuari kargatua.

Aurrean aipaturikoa aplikatuko da lotuneen mantenimendu eta konponketa Udalak egiten ez duenean. Zerbitzu hau kuota finko baten bidez kobratuko da.

108. Atala. Arau hauste larriak.

Arau hauste larritzat joko da erabiltzaileak zuzenean edo hirugarren baten bitartez honako ekintzaren bat burutzeak:

1. Ixteko giltzean edo kontagailuetan araudi honen arabera Udal Zerbitzuak jarritako prezintoak apurtzea.

2. Kontagailuak maniatzea, horretarako baimenik ez denean, aurreko artikularen arabera.

3. Zerbitzu pertsonalgora bakarrik aritu dezakeen bide giltzetan maniobrak egin, araudi honen arabera.
 4. Kontagailuek benetako kontsumoa neurtu ez dezaten helburuarekin egiten diren maniaketak.
 5. Kontagailuaren aurretik lotune edo hartune adarren bat jartzea, edo eta polizan ez dauden beste etxe edo lokalari bideratzea.
 6. Zerbitzuaren baimenarik gabe beste hirugarrenei ura ematea.
 7. Kontagailua irakurtzera doazen Zerbitzuko langileei sarrera galeratzea, edo instalazioaren ikuskapena egiterakoan edo eta ur hartzeak dauden lekuetan trabak jartzea. Zerbitzuaren nahazketa edo iruzu egitearen arrastoak daudenean.
 8. Zerbitzuan baja eman ondoren, ura kontsumitzen jarraitzea.
 9. Erabiltzailearen erruz edo zabarkeriaz beharrezkoa ez den ur kontsumoa sortzen duten instalazio pribatuetako akats eta ihesak mantentzea.
 10. Araudi honetan ezartzen diren betebeharrak haustea.
 11. Zerbitzuaren funtzionamendu normala hausten duten edozein egite zein ez egiteek.
109. Atala. Arau hauste oso larriak.

Ondoren arauzten diren hausteak oso larritzat joko dira eta hitzarmenaren suntziazpenarekin batera, hornidura mozketatik ekarriko du:

- Kontsumo erregimen orokorra edo eta honen ezaugarriak aldatzea; baita ur helburua aldatzea kontratuaren baldintzak aldatzen direnean ere eta Udalari jakinarazi ez zaionean.
- Irakurketa zein ikusketa lanetarako doazen zerbitzuko langileei sarrera galaratzea.
- Udalak hornitutako ur-sarea beste edozein ur iturrietik lotuneak jarri.
- Bideratze edo eta hustuketa baldintzak eragin dezaketen aparagailuak erabili.
- Hornitutako ura zein hustuketa ahalmena lagatu edo saldu.
- Udalak ezarritako baldintzak bete gabe hornidura beste hirugarrenen bati eskubidea ematea.
- Udalaren baimenik gabe ikusketa egiteko ezinezko den leku batean jartzea edo bideak zein neurketa ekipoaren kokapena aldatzea.
- Neurketa ekiporik gabeko ur kontsumoak egitea.
- Neurketa ekipoaren prezintoak maniatu.
- Neurketa ekipoak nahita maniatuz ura zuzenean erabiltzeko mekanismoak erabili.
- Toki sare edo eta hustuketa orokorretako ezaugarrien baldintzak haustu.
- Udalak jakinarazi ezta baimendu ez dituen hustuketetan sartzen diren industri prozedurarako aldaketak, zeinaren egoera edo edukina aldatzen dutenak.
- Barne instalazioan aldaketak egin, bereziki bolumenaren ezaugarriak afektatzen dutenak eta baita instalazioaren hornidura-hitzarmen desberdina suposatzen duten eratorpenak, etxebizitzarako zuskidura edo hustuketaren kaltetan gabe.

110. Atala. Kautelazko neurriak.

Udalak, aurreko kasuetan, hitzarmena indarrrik gabe utzi dezake kautelazko naurri modura.

Uztezko haustea abonatuari jakinaraziko zaio hamar eguneko epe barruan ongi derizkion alegazioak aurkez dezan. Alegazioak aztertu ondoren dagokion ebazpena emango du Udalak; hornidura etena eragiteko balioko duelarik, egoitzaren barruan sartzeko epailearen baimenaren kaltetan gabe.

Hitzarmen etenaldiaren epea ebazpenean behin betiko zehaztuko da, hilabeteko epe-muga gainditu gabe. Arau-haustea konpondu ondoren, ur-hornidura egun horretan bertan edo ondorengo lanegunetan emango da.

111. Atala. Zigorrak.

Aurreko artikuluan aipatutako lege hauste oso larriak Erregimeneko Legeak edo eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen diru-bilketa araudian ezarritako mugen barnean zigortuko ditu Alkatezatzak indarrean dagoen prozedura administratiboa jarraiki. Lege hauste larriak kontratu murrizketa ekarriko dute, aipatu prozeduraren ostean.

XXXXXXXX XXX XXX XX XX XXX XXXXXXX XXX XXXXXXX XX XX XX XX XX X XXXXXXX XX XX XX X XXXX XX XX XX
XX XX XXXXXXX XX XX XXXXXXX XX X

112. Atala. Legepeko egintzak.

Aipatutako zigorrez gain, udalak, indarrean dauden legeei jarraiki, zuzenbidez dagozkion egintzak burutuko ditu, zerbitzu publikoa normaltasunean sartzeko beharrezkotzat hartzen dituen bide subsidiari bitarteko egintzak burutzea barne.

113. Atala. Hirugarren batzuei kalteak.

Erabiltzailea da berak burututako kontsumoaren ondorioz hirugarren batzuei sortutako kalte eta galeren arduraduna.

114. Atala. Informazioa jasotzeko eskubidea.

Udal Ur Zerbitzuak erabiltzaileei Erregelamendu honen edukinari eta aplikazioari buruz duten informazioa emango die.

115. Atala. Legeria ordeztaila.

Araudi honen kaltetan gabe, Udal Ur Zerbitzuak Toki Administrazioaren zerbitzu Araudia eta beste ordeztako araudi orokorrak ezarriko ditu.

116. Atala. Inpugnazioa.

Erregelamendu honetan erregulatzen diren gaietan ematen diren udal ebazpenak errekursoetarako erregimen Orokorraren bidez inpugnatu ahal izango dira, bide administratiboan nahiz eskumenekoan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Erregimen berezia.

Xedapen bereziak emateko eskubidea bere esku gordeko du, uraren garbitasuna uki dezaketen erabileren kontsumoari dagokionean bidezkoa jotzen badu, horretarako, eskatutako baimenak baldintzatuz. Zerbitzuaren funtzioamendu normalean galera larriak sor ditzaketen kontsumoak uka dezake.

Bigarrena. Arau osagarriak.

Kontagailu orokor bat duten inmiebletako erabiltzaileek kontagailu independenteak jarri nahi badituzte, dagokien obrak euren kontura egin beharko dituzte. XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehena. Hornidura legeztapenak.

Gaur egun Zerbitzuak baliatzen diren erabiltzaileek, erregelamendu hau indarrean jarri eta 3 hilabeteko epean, hornikuntza legezatu beharko dute, dagokien ordainketa poliza izenpetuz 27. atalaren arabera.

Bigarrena. Kontagailu independienteak.

Gaur egun etxeko erabileraren bidez kontagailu orokorrekin hornitzen diren industri erabilerak, araudi hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean kontagailu independientea jarri beharko dute.

Hirugarrena. Kontagailu orokorrak.

Kontagailu orokorra ez duten eraiketak araudi hau indarrean jarri eta bi urteko epean ezarri beharko dute.

INDARGABEKO XEDAPENA

Erregelamendu honek erregulatzen dituen gaietan aurretik emandako udal arau guztiak indargabe gelditzen dira.